

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Ikasleei iruzurrik ez, dagokigunaren alde borrokatu!

Aitor Perez (Arrasateko Eskolako Gazteak-en izenean)

Euskal Herria, azken urteotan eraso anitz jasateaz gain, bere eskubide demokratikoen zapalkuntza etengabea pairatzen ari da. Horietako bi adibide garbi dira adierazpen askatasunaren eta ikasleriaren eskubideen ukazioa. Hor kokatu nahi genituzke Mondragon Unibertsitatean eta bereziki Arrasateko eta Oñatiko campusean jasatera behartuta gauden erasoak. Gure jardueran beharrezkoa zaigun informazioaren ezabaketa eta eskuragai ditugun baliabide informatiboekiko pertsekuzio etengabea gertatzen ari da fakultate hauetan. Ezker abertzalean eta batez ere eus-

kal ikasleriarekin eraman beharreko dinamika hankaz gora utziaz. Gure eguneroko lanaren aurka agertzen diren organoak zuzentzen dituztenekiko salaketa gogorrena jakinarazi nahi genuke. Bestalde, ikasleriaren eskubideen ukazioa ere salaketarako derrigorrezko hizpide dugu. Ikasleriak urteetan bere grebarako eskubidea bermatzen zuten erakundeen eskubideak bortxatuak izaten ari baitira.

Lotsagarria da Mondragon Unibertsitateak barne araudian agertzen duen greba normatiba. Grebarako aurkezten diren baldintzek esku-eskura uzten dizkiete zuzendaritzako arduradunei erabaki arbitrarioak eta jarraera prepotenteak. Otsailaren 22rako grebarekin ikasleen %78 ados egon arren, zuzendaritzaren erabakiaren ostean, deialdia bertan behera uztea erabaki zuen. Bere hitzen arabera, «Segi eta Askatasuna» erakun-

deen ilegalizazioa ez zelako ikasleriari zegokion gaia. Unibertsitateko ikasleek eta euskal ikasleek orokorrean ezin dute zuzendaritzaren hitzen edota erabaki antidemokratikoen aurrean mutu gelditu eta are gutxiago hauek muga bezala onartu. Honetatik haratago iristea izan behar dugu helburu eta ikasle bezala gure unibertsitate nahiz eskoletan gure hitza aditzera emanaz gure eskubideen defentsa areagotu behar dugu.


AEK-koen besta

Helios Del Santo (Irrintzi Euskaltegiaren eta horko laguntzaileen izenean)

Irrintzi Euskaltegian jaialdi bat antolatuta dugu larunbaterako. Orain 12 urte, Iruñeko beste auzoetan bezala, AEK Donibanen sortu zen

eta gaur egungo euskaltegiak berehala 7 urte beteko ditu. Urte hauetan ehunka izan dira egunero euskaltegi honetatik pasatu diren ikasleak. Ikasle eta irakasle horiei zein Nafarroako gainontzeko guztiei eskainita dago besta hau. «Kaixo, zer moduz zaude» esaten bizi nahi duten horiei, Nafarroa eta gizarte berezi honekin apurtuz egunero euskaltegi batera datorren jende ero horri. Eroak baina azkarrak, dakitelako iragana, oraina eta etorkizuna beraiena dela. Larunbatean egun osoko egitaraua prest izanen duzue eta Donibane Kirol Elkartearen atzean karpa bat muntatuko dugu. Gurekin bat egiten duten hainbat auzokide eta lagun ahaztu gabe, egunero Euskal Herriko edozein tokitan euskaltegi batera hurbiltzen den ikasle horren ametsa betetzen ari delakoan, har ezazue gonbita eta etor zaitezte karpara.

montxo



galdeiozu... ?



Etxeetan argindarraren instalazioa nola egin behar da gure osasunari kalte egin ez diezaion?

Peru Segurola (Eibar)

Gure etxeetako kutsadura elektromagnetikoa gutxitzeko, hauek dira kontuan har daitezkeen gomendio batzuk: estaldura isolatzailea duen kablea eta galera-maila txikikoa gomendatzen da, hiru faseak txirikordatuak baditu hobe. Etxeetan konexio-kutxak, kontagailua eta disjuntoreak pertsonen presentziatik baztertutako toki batean kokatu behar dira eta, ahal bada, metalezko kutxa batean. Instalakuntzak *tierra* konexio ona izan behar du, atalka edo funtzioen arabera banatuta badago hobe. Etxeko kutsadura elektrikoaren kontrako babes onena behar ez ditugun instalazioaren zatien itzalketa egokia da, bereziki gauez. Ohearen atzealdeko kableak eta atsedean lekukoak ekidin. Irrati-iratzargailua ekidin. Mikrouhin labearen ateari kontrol zehatza egin. Telebista eta ordenagailu-monitoreen atzealdeak ez luke logelatarara begira egon behar, paretak ez baitu erradiazio elektromagnetikoa geldiaraziko.

Martxoaren 26tik aurrera **Jose Mari Carrere • ipuin kontalaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak.

hirusta



Asisko Urmeneta

Primaderako liliak

Karrikan Vivaldiren jotzen ari da Sobiet Inperio zeneko hirukotea, eta bere hartan baratu ni, urtaroren beha. Postontzia ere ostoberritu egin zait erostorioen publiez, eta eguna oskarbi heldu dela adierazteko, «zeru urdina» iragarri du irriatik. Eta ederki iduritzen zait azken 7000 urteotan goibelaren edo hodeitsuaren sinonimoa izan denak kontrako adiera hartzea aurten, hargatik; eta hori ez da hedabideek popularizatu duten mutazione bakarra: horra hor «arratsa», adigarritz modernotuz arraso. Arrastiri eta a(rra)tsaldearekin lehiatzen ari da orain konkurrentzia bizian: «arratseko 4etan» horrek biziki aktuala egiten du, egundaino aditu gabea. Eskandinabiatik kanpo beti ere. Behar bada hirukote eslabiarrak ere baliatzen duke «arratseko 4etan», baina ez zait galdetzeko une egokia iduritu, Udaberriari batzarri egiten ari

gatzazkion honetan. «Los que dicen que Navarra no es Euskalerría/que miren los apellidos y la toponimia» idazten zuen, akzentu eta oro, Arbeloa Victor Manuelek, aspaldi. Apez ohi, abertzale ohi eta ezkertiar ohi honek fonatu egin du Aranburo aberea, eta zoriondu Alderdi-ko diziplina urratzeagatik. PSOE baskofilia-*ra* perbertitzen ari omen baita, eta Arbeloa Victor Manuelek konfortatu egin du Aranburo haren gurutzadan. «Muy bien, has hecho muy bien». Hirukote langabeak Straussen baltseak jotzen hasi da oraitan, eta aire urosak gogora ekarri dizkit —*Kubrick*©-*Madri*leko polizien zafraldia bertze polizien eskumakiletik. Iduria lorio-*sa* non ere baita. Antsuategi, Juaristi, Azurmendi; zuek dituzue promozionatu, zuek jasanen orain. Hor baluke aski deitura Arbeloa Victor Manuelek bertze poesia txar baten idazteko.